

ZAINDU EZAZU
URA ETXEAN


Bazenekien industriatik eta udal-erabileratik datozen hondakin-urak berreskuratu eta berrerabil daitezkeela industria- edo hozte-ur gisa?

Asteko erronka!

Etxetik ere ura berrerabil dezakegu!

Hobetu zure ohiturak!

Hemen dituzu
ideia batzuk



Ura berrerabiliz gero, energiaren %90 eta uraren %70 aurrez daiteke.



Gaur egun, uraren %12 baino gutxiago berreskuratzen eta berrerabiltzen da.



Industria-erabilerak munduko ur gezaren %20 kontsumitzen dute, berrerabiltzea bultzatuz gero, kontsumitzen duen edateko uraren kantitatea murriztu egingo litzateke.



Hondakin-urak berrerabiliz, baliabide hidrikoak hobeto **aprobetxatzen** dira, eta ingurumena hobeto kudeatzen da.



Berreskuratutako uren erabilerak oso desberdinak dira: nekazaritzako ureztaketa, parke eta lorategiak ureztatzea (golf-zelaiak), akuiferoak betetzea, edateko ez diren hiriko erabilerak (garbiketa), suteen aurkako borrokan, komun erabileran, etab.

Tantaz tanta ura agortzen doa

